

# Goierri tarra

331. zenbakia 2007ko azaroak 23

Andrés eta Patxi Zabaleta  
**ZEGAMAKO  
AMERIKARRAK**



**Olaberrian** Toyota kontzesionario berria!

## **EuskoAuto**

Karobi industrialdea z/g Olaberria  
Tel.: 943 80 59 26



**TOYOTA**

[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)



# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.  
(Medikuntza estetikoan masterra)  
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal  
ZENTRO MEDIKUA  
[www.kursal.es](http://www.kursal.es)

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea  
BEASAIN

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU  
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

## BERTSOTAN



Aitzol Barandiaran

## Gipuzkoako txapela norentzat?

Txapelak jatorriz du funtzio argi bat: soilgunea estali beharra erabat. Kopetaren distira hartuz gero aintzat ez al da egokia Mendiluzerentzat? Premia larriena berak dauka behintzat.

Baina andoaindarrak ez badauka faltik, zergatik ez Aitorrek, Joxek edo Txapik? Galtzeko oso gutxi dutela badakit, hotz mantendu behar da burua, horratik, ez dezatela galdu txapelarengatik.

Doinua: "Agur sagar beltzaran"

## Goierritarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

#### Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

### Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Iñaki Murua.
5. **Ingurugiro txokoa:** Planeta aldatzeko ideia sinpleak (I).
6. **Euskara txukuntzen:** Denetik (IV).
7. **Errezeta:** Iberiko eta anana brotxeta.  
**Aholkua:** Lokalak biziberritzen.
8. **Elkarrizketa:** Patxi eta Andres Zabaleta Zegamako amerikarrak.
14. **Elkarrizketa:** Goiatz Arana Goiena telebistako aurpegi goierritarra.
18. **Garai batean...:** Zegamako umeen kantuak eta esaldiak.
20. **Gazteleku:** Miren Naldaiz piano jolea.
23. **Iragarki laburrak.**
24. **Non zer.**
26. **Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Iñaki Murua

## Kontu euskerari!

**O**raindik hilabete asko ez dela, idazle asteasuar ezagun batek zion, egungo euskara *mibia* dela; maku-lu gutxi eta jario erraztasunik gabea, alegia. Beraz, euskara *mibia* darabilgula mihian.

Hori esatean ez zuen Amerika desbriatu, ezta *mibia* nola loditu jakitera eman ere, nahiz eta hitz jarioak aberatsenak mihia loditzean sortzen zaizkigun!

Aste pare bat edo gehixeago izango dira Goierriko Hitza eraberritzeko asmoen berri jakin genuela Beasaingo Iartza Jauregi/Errota/Burdinola, dotore eraberrituan. Hitzaldia amaiturik eta mokadu bat egitera umoretsu nindoala, bi goierriar ni baino gazteago inguratu zitzaizkidan eta, entzun genuen hitzaldiaren harira –herritarrok kazetari bihurtu behar genuela edo—nik esan nien:

- Orain aurpegi eman behar zaiok apustu horri.

Eta beraietako batek:

- Bai, bai hori egina dago. Horretarako aurpegia daukana asko dago hemen.

Nik, badaezpada ere, argitu nion aurpegia eduki, edukiko zuela hainbatek baina edukizetik ematera koska dezentea dagoela; eskaintzetik ematera dagoen adinakoa, gutxienez. Tori eta tati, alegia! Eta, nire harridurarako, segituan ohartu nintzen orduan jabetu zirela bi esamoldeen arteko aldeaz.

Nik aitortzen dut, denok ez dugula euskara aberasteko aukera bera ez jaiotzatik, asko euskaldun berriak dira, ama hizkuntza erdaretako bat dutelarik, ezta eguneroko jardunean ere. Zenbatek dauka inguru euskaldunean aritzeko modua lanean, eskolan edo dena delakoan? Hala ere, euskarak euskaldun berriak behar dituenik inork ez dit ukatuko. Euskal hiztunon

familiara datozkigun kide berriok ez dutela, beti, euskaraz adierazteko gaitasun bikainena izango ere, normaltzat hartu beharko dugu, ezta?

Adibidez, bertsolaritza izango zen bat baino gehiagorentzat hizkuntza aberatsaren sehaska. Ba, euskaldun berriak bertsotan hastearen pozarekin batera, hortxe hasi gara “arrosarioarekin ia jo ziazun” eta “txori kaka” zirinarean lekuan e.a. entzuten.

Bat baino gehiagok esango dit, bale hi, bat batean ari direlarik, hori eta gehiago ere ulertu behar diagu. Konforme, baina umetatik egunero euskaraz ari denak horrelako gutxi esaten du bertsotan ere eta, gutxiago, zuzenduko dion norbait inguruan izan badu.

Eta bat batean ari ez direnak zer? Askotan entzun dut:

- Halako tokitan *etxea behera etorri da*. Eta zer egin du, gero gora joan al da berriro? Etxeak, txarren txarrenera, erori egiten dira eta azpian harrapa gaitzakete.

- Edo, *trenbidea gurutzatzen ari zela, auto bat trenak aurretik eraman du*. Berezat hobe harrapatu ordeztu aurretik eraman badu, hartara behintzat ez zuen trenak azpian pasako!

- Istripua nazional batean, *auto batek bidetik irten du eta bidea itxita dago*. Bidetik irten eta hala ere bidea itxita utzi badu, eskerrak irten duen, bestela, auskalo noiz irekiko ziguten!

- Bilera batzuetan honako hau ere entzuten dut *demanda bandia baldin badago, erantzun egin beharko da*. Eta nik pentsatzen dut, hemen builaka hasi dituk bakarren batzuk eta sekulako iskanbilaren bat badiagu. Baina ez, *demanda* hori eskaera, eskari edo eske omen zen eta ez istilu, iskanbila edo antzeko demandarik, gure baserrian haurtzaroan sarritan izaten genituen bezala.

Etenik gabeko adibide arrosarioa jar-tzeak, ordea, ez garamatza inora eta bada-kizue zer egin behar dugun? Horrelakoak barruntatzen ditugunean, zuzendu; tentuz eta kontuz baina atseginez, zuzendu. Lehenagoko aitona zion bezala, zuzentzen ere ondo pasa liteke eta!

*Nik aitortzen dut, denok ez dugula euskara aberasteko aukera bera ez jaiotzatik ezta eguneroko jardunean ere.*



# Planeta aldatzeko ideia sinpleak (I)

Hona hemen Rafael Ruiz eta Clemente Álvarez kazetariak emandako aholkuak. Edozeinek egin ditzakeen ekintza sinpleak dira.

## 1. Beste bonbila batzuk

Aldatu bonbila arruntak kontsumo baxuko beste batzuegatik. Garestiagoak dira, baina ohikoak baino 10 aldiz luzeago irauten dute eta gainera lauzpabost aldiz gutxiago gastatzen dute. Eskatu zure udaltxeari kalean argiztapena eraginkorragoa eta kontsumo baxukoa izatea.

## 2. Zabor gehiegi

Gure etxeetako zabor poltsak gero eta handiagoak izan ohi dira. Gogora dezagun hondakinak gestioatzeko urrezko araua: gutxitu, berrerabili, birziklatu. Plastikoa edo ontzi gehiegi duten produktuak erostea ekidin behar da. Hoberena beira da. PVC ez den plastikoa eta latak, tetrabrikak baino errazagoak dira birziklatzeko.

## 3. Eguzkia etxean

Plaka fotoboltaikoak ezartzeko laguntzak egon ohi dira; konpainia elektrikoak energia berriztagarria araututako prezioan erostera behartuta daude.

## 4. Berogailua eta aire egokitu

Banakako berogailua baduzu, jar ezazu termostato bat gastua kontrolatzeko. Temperatura igo edo aire egokitu ipini aurretik, jantzi jertse bat neguan edo sortu ai-

re korranteak udan. Erabili olanak, pertsianak eta airez-tagailuak udan eta kontutan hartu zein ordutan aireztatzen dugun etxea. Ez ahaztu etxebizitzaren isolamendu on batek energia eta gastua %30ean ere aurreztu dezakeela.

## 5. Hondakin teknologikoak

Aparagailu elektronikoek sustantzia arriskutsuak izaten dituzte. Eraman itzazu puntu berde batera. Aparagailu bat aldatu aurretik bi aldiz pentsatu ea guztiz beharrezkoa den.

## 6. Txorrotak egoera onean

Kontuz tantanka ari diren txorrotekin. Begiratu etxeko txorrotak guztiak. Aurrezteko modu bat txorrotak erregulatzeko duen difusore bat jaritzea da.

## 7. Tantz tanta

Lorategi edo baratzerik izanez gero, ezarri tantaz tantako ureztapen sistema. Modu honetan ur asko aurrezten da. Uraren sarean inongo isurketarik ikusten baduzu, abisatu udal zerbitzuei ahalik eta azkarren.

## 8. e-fakturak

Eskatu fakturak eta bankuko jakinarazpenak e-mail bidez bidaltzea, paperezkoak bidali ordez. Kontrolatu hilabetero ur eta energiaren fakturak kontsumoaren kontrola eramateko. Proposatuta zeure buruari hau jaitzea.

## 9. Gutxiago gidatu

Hiri barruan kotxez egiten diren 10 bidaiatik bat 500 metro baino gutxiagoko bidaiak egiteko izaten dira. Honelako distantziak gehienok oinez egin ditzakegu, eta gainera osasuntsuak dira. Gogoratu kotxe txiki batek handiago batek baino gutxiago kontsumitzen duela eta eraginkor gidatzen bada, erregai gastua eta CO2 isurketa jaitsi daiteke.

## 10. Herri modeloa

Etxea erostekotan, pentsa ezazu serioki hirigunean bizitzearen aukera. Adosatuak bezalako eraikin berriek lur eremu handiak erabiltzen dituzte, eremu berdeak desagertaraziz.

## 11. Kontsumorik gabeko denborapasa

Ez utzi erostean obsesioak zure denbora librean baldintzatzen eta protagonista bihurtzen.

## 12. Bizikleta gehiago

Mugitu bizikletan, orografia, klimak eta trafikoak uzten badizute behintzat. Zure herrian bizikletaz mugitzea arriskutsua ikusten baduzu, eskatu zure udaltxeari bidegorri gehiago.

## 13. Informatu eta parte hartu

Egunkariak irakurri, aktualitatea jarraitu. Dakien kontsumitzaileak ardurarekin kontsumitzen du. Herri eta hiriak denon artean eraikitzen ditugu. Parte hartu bizilagun elkarteetan eta auzolanetan.

## JAKIN BEHARREKOAK

**Eusko Ikaskuntzak ADE-VE galtzar dauden espezie defentsarako elkarrearen funts bibliografikoa zabalduko du interneten.** Euskal Herriko lehorreko zein itsasoko landaretzari eta faunari buruzko informazioa eta naturaguneei buruzkoa ere bai. Euskal Herriko bioaniztasunaren 10.000 orri euskaraz eta 12.000 argazki. Naturaren Ahotsa (elebiduna) eta Euskal Herriko Natura (euskaraz) aldizkariak ere azalduko dira.

**CSICko ikerlari talde batek zementuaren balio-kidea den materiala garatu du.** Betiko porlana baino bere ekoizpenean CO2 isurketak %50 murriztuko dira eta behar den temperatura 18 aldiz txikiagoa da. Ikatzaren erreketa-oren ondorioz sortzen den errautsekin egin dute.

**India biopirateriaren aurka.** Indiako Auzitegiak Novartis enpresak patenteen legearen aurkako eskaria ez du onartu. Auzitegiak dioenez, legezkoa da Glivec, minbiziaren aurkako medikamentuaren, ekoizpen jenerikoa. Usadiozko errezeta baten oinarriturik dago eta ez da suizar laboratorioen "benetazko berrikuntza". 2006 Glivec patentea errefusatu zuten "ezagutzen den sustantzia baten itxura berria zelako". Novartisek patenteen legearen aurka jo zuen eta auzitegiak berriz berretsi du legea.

**Azaroak 25** nazioarteko erosketarik gabeko eguna.

# Denetik (IV)

Maizpide euskaltegia

Gaurko lapikoak osagai dezente izango ditu. Ea gustukoak dituzuen!

## Ahaztu!

Ahaztu aditzak -(z)ea edo -(z)en hartzen ditu, baina esanahia aldatu egiten da. Erreparatu adibideei:

**-T(Z)EA:** zerbait egitea, besterik gabe, ahazten zaigunean!

**Juan Karlos Irizarrekin (edo Elton John-ekin) pianoa jotzeA abaztu zait!**

(Garagardoak hartzera joan naiz eta Juan Karlosekin bitzordua nuela abaztu zait)

**Alabaren gona josteA abaztu zaio Joxe Mariri goizean.**

(Arratsaldean josi beharko du, ondotxo daki-eta nola egin behar duen)

**-T(Z)EN:** "abildaderen bat", hainbat arrazoi direla medio, galtzen denean!

**Panderoa jotzeN abaztu zait!**

(Hogei urte eman ditut jo gabe... eta orain ez naiz ondo jotzeko gai!)

**JosteN ere abaztu zaio amona Maritxuri!**

(Alzheimer-a du gajoak eta ez daki zer egin jostorratza eta baria hartuta)

## Oraindik / artean:

Ez ote dugu beti "oraindik" erabiltzen?

**ORAINDIK:** orain aldiari erabiliko dugu.

Bost urte falta zaizkio **oraindik** gure Juanitari erretiroa hartzeko.

**ARTEAN:** lehen aldiari erabiliko dugu.

Gure Juanitak, 14 urte zituenean, **artean** ume mokoaren zenean, mutil asko zituen atzetik.

... baina baita geroaldirako ere:

Igandean, **artean** bukatu gabe izango dut txostena, baina astearterako pronto izango dut!

## Honezkero / dagoeneko:

Nahastu egiten ditugu eta ez dira gauza bera!

**HONEZKERO:** ziurtatu gabeko ustea adierazteko erabiliko dugu.

*Semea eta andregaia orain dela bost ordu abiatu dira Beasaindik. **Honezkero** Madrilen izango dira (bala uste dugu).*

**DAGOENeko:** Kontu jakina dugu, frogatutakoa! **Harri-dura** adierazten du.

*Semea zen, Maritxu! **Dagoeneko** Madrilen direla bera eta andregaia! Hiru ordu ere ez dira pasa-eta! Jesus, Maria eta Joxe! Martxa honetan gida-baimenik gabe geratuko da!*

Lehen aldian, erabil dezagun **ORDURAKO:**

*Arratsaldeko zortziak eta bost ziren dendara deitu nuen, baina **ordurako** etxerako bidean ziren langileak.*

Ixilduko ahal haiz, motel!

Hi, aizak, ni ixilaraziko nauen kristaurik ez duk oraindik jai!



## Zuzendu, behar izanez gero...

1. Oraintxe amaitu dute bazkaltzen eta, begira, honezkero igerilekuan dira. Dedio, ume hauekin ez dago!
2. Oraindik gaztea zen Josune Realak Gijonen Espainialo Liga Txapelketa irabazi zuenean.
3. Gaur irakasleari etxerako lanak bidaltzen ahaztu zaio. Ziur bihar lan bikoitza izango dugula!
4. Dagoeneko lasaituta egongo da On Juan Karlos, Chavez-ekin erretxindu ondoren.
5. Oraindik puska batean entzun beharko dugu...” y tú por qué no te callas” xeblebre hori!

**OHARRA:** lehenengozan **dagoeneko** behar du; bigarren, **artean**; hirugarrenengozan, **etxerako lanak** AGIN-TZEA; laugarrenengozan, **honezkero**; azkena, zuzena da.

  
LADA  
Ssang Yong  
**ARANDIA**  
Garajea  
AUTOEN KONPONKETA  
N-1, z/g Iurre Auzoa  
OLABERRIA  
☎ 943 88 09 47

**AGNES IRIGOYEN**  
**PODOLOGOA**  
Elkargo kide zbk 230  
Astelehenetik  
ostiralera:  
9:30etik  
18:00etara  
  
Tel.: 943 086 925  
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA  
RPS: 38/07

**ALDANONDO GARAJEA**  
MICHELIN zerbitzu ofiziala  
Gurpil lanak,  
alineazioa,  
aluminiozko llantak  
Filtroak, olioak,  
engrasea  
Frenu pastilak, tubo  
eskapeak, bateriak  
Harezko txorrotadak  
  
Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

## SUKALDEAN

## Iberiko eta anana karamelizatu brotxetak



**Iban Mate**  
Dolarea jatetxea  
Beasain

### Osagaiak:

- Iberiko haragia
- Anana (piña)
- Cherry tomateak
- Azukrea
- Gurina
- Brotxeta makiltxoak

Txerri iberikoaren haragia dadoetan moztu eta gorde. Anana ere dadoetan moztu ondoren gurinarekin zartagian pixka bat egin eta azukrearekin karamelizatu eta gorde.

Brotxeta makiltxoetan iberiko haragi puskak eta anana puskak bata bestearen ondoren jarri cherry tomatearekin bukatuz.

Ondoren plantxan egin brotxetak eta zerbitzatu.

## Lokalak biziberritzen

## AHOLKUA

Etxebizitzen merkatuaren aztoramenduaren aurrean, entitate publikoek neurri berriak hartzeko beharra somatu dute, Babes Ofizialeko Etxebizitzen (VPO) formula tradizionala ez baita nahikoa hiritarron etxebizitza duinerako eskubidea bermatzeko, eta neurri horietako bat dugu lokal komertzialak etxebizitza bezala egokitze baimenak ematea. Honekin lortu nahi dena da etxebizitza merkeen eskaintza igotzea, eta bi-debatez denbora luzean itxiak egon diren lokal komertzialei zeregin sozial bat esleitzea.

Geroz eta gehiago dira gai honen inguruan araudia onartu duten udalak, edo hura prestatzen dabiltzanak. Herri bakoitzak bere araudi propioa izan arren,

guztiek amankomunean dutena da honelako baimenei bi baldintza nagusi ezartzen zaizkiela, ezinbestekoak eman nahi izan zaien helburua beteko badute:

- ✗ Lokalaren ezaugarri fisikoek bertan etxebizitza duina antolatu ahal izango dela bermatzea.
- ✗ Lokalaren egokitzapena etxebizitzen beharrari aurre egiteko burutzea, eta ez inolako interes espekulatiboengatik.

Lehenengo baldintza betetzeko helburuarekin, ordenantzek lokalen gutxieneko ezaugarri fisikoak jasotzen dituzte, hala nola gutxieneko azalera, argitasuna...

Bigarrena bermatzearen, halako erabilera-aldaketarako baimena jasotzen duten lokalentzako Babes

Ofizialeko Etxebizitzen antzeko eraentza aurrakusten da, bi neurri nagusi ezarriak hura saltzen den kasurako:

- ✗ Salneurri tasatua ezarriko da, ezingo delarik honen gaitetik saldu.
- ✗ Udalak lehenetasunez erosteko eskubidea izango du lokalaren zein egokitutako etxebizitzaren gain.

Araudi hauek etxebizitzen merkatuan zein hauen prezioen gorabeheretan izan dezaketen eragina ikusteko dago. Bitartean, Beasain, Urretxu edo Zaldibia bezalako udaletan martxan jarri berri diren neurri hauek inguruko beste zenbait herritara zabaltzekotan leudeke, inguruko hainbat udal antzeko araudia onartuko dutenentz planteatzen ari baitira.



**Daniel Martínez Piqueras**  
Gertu inmobiliaria  
Beasain

**TOLDOS OLANAK**  
**AGUSTINI**  
Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558  
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42  
LAZKAO

toldosagustin.com  
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239

*Lirain*

**Lurrindegia eta opari gaiak**





## Patxi eta Andres Zabaleta: “Zegamatik 17 lagun joan ginen artzain ipar amerikara”

**P**atxi eta Andres Zabaleta, beste 15 zegamar bezala, 1943. urte inguruan, Amerikako Estatu Batuera artzain joandakoak dira. Gaur egun gurera kanpotik datozen bezala, XX. mende erdialdera, euskaldun asko joan zen Atlanti-

koaz beste aldera, bizimodu hobeko baten bila. Patxi eta Andresek, Estatu Batuetako nazionalitatea dute. Hori lortu ahal izateko, historia luzea eta gogorra bizi behar izan dute. Beraien bizipenen errebasotxo bat egin digute.

**VOLVO** 

**ANZIZAR, S. A.**



**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**  
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

**IÑAKI ARIN**  
aseguruak



943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN



Zegamako Hiruetxeta base-  
rriko semeak dira Andres  
eta Patxi. Biak ere, Felipe,  
anai zaharrenarekin batera,  
hegazkina hartu eta Ameri-  
kako Estatu Batuetara joan  
ziren artzain, bizimodu ho-  
beago baten bila. Patxi izan  
zen joaten lehena, 1943ko  
uztailaren 5ean; bi urteren  
bueltan, Andres joan zen;  
eta geroxeago Felipe.

Ez ziren bakarrak izan.  
Hiruetxeta baserria dagoen  
auzotik, adibidez, 10 lagu-  
nek hartu zuten bide ber-  
bera. Gehiago ere esango  
lukete Andresek eta Patxi:  
“apustu egingo genuke, Gi-  
puzkoan ez dela herri bat  
egongo, Zegamatik hain-  
beste artzain joandakorik.  
17 joan ginen. Bizkaitik eta  
Nafarroatik argi, hor ez nu-  
ke apusturik egongo. Mar-  
tin Etxezarreta joan zen le-  
henengo 1964an”, diote ze-  
gamar amerikarrek.

Batzuk itzuli egin dira,  
Andres kasu; beste batzuk,  
bertakotuak daude erabat;  
eta beste batzuk, joan-eto-  
rrian ibiltzen dira, Patxi be-  
zala. “Azkeneko 19 urtean,  
19 aldiz etorri naiz Euskal  
Herrira. Kasi hemen denbo-  
ra gehiago pasatu dut, han  
baino. Egunen batean igual  
etorriko naiz, ez noa ezetz  
esatera, baina ez dut uste;  
erabat etortzeko portzenta-  
jea oso txikia da. Orain  
behintzat, hemen bizitzen  
ezin liteke bizitzen egon.  
Dolarra kanbiatuz hemen  
bizitzeko oker ikagarria da.  
Dolar bat eta 47 zentimo  
behar dira euroa erosteko.  
Nire herri maite hau erres-  
petatzen dut, baina hemen-  
go klimak akabatuta uzten  
nau”, dio Patxi.

Andresek itzultzea era-  
baki zuen duela 20 bat ur-  
te. “Gaztetan etxean ni ge-  
ratu nintzenez, baserria nire  
izenean zegoen eta jaiote-  
txeari eusteko edo jarraipe-  
na emateko beharra senti-  
turik itzuli nintzen. Etxea  
berritu eta ikuilu berria  
egin nituen”, argitu du An-  
dresek.



*Goiko argazkian Patxi eta bebekoan Andres, berak egindako ogiarekin.*

## “Hango faltea”

73 urte ditu Patxi. 5 gutxiago Andresek. Anairik zaharrena, Patxi, azken hilabeteetan bere jaiotetxean baldin badago ere, Wyomingera joateko irrikan dago. “Ez zait bizitzeko hementxo postura gustatzen. Ondo pasatzen dut, baina bizitzeko gehiago gustatzen zait hura, hau baino. Hango falta asko botatzen dut nik hemen”, dio Patxi.

Amerikara joanez, hango zein onura azpimarratuko ote lituzketen galdetu diegu.

**Patxi:** Kontu askotan atzera gaude oraindik hemen. 15.000 biztanle inguruko herria da. Arropak garbitu eta lehertzeko garbitzeko bi leku daude; dendak egun guztian irekita; gauzak gordetzeko lekuak... Bat horretara ohituta dagoenean, nahi duzuna nahi duzunean... egiten gauza askoren falta botatzen du hemen. Ez naiz hona egiten.

**Andres:** Amerikako bizimodua erosoagoa da. Lanean erreleboak desberdin dira 8:00etatik 16:00etara 16:00etatik 24:00etara eta 00:00etatik 8:00etara. Adibidez 12etan lanetik ateratakoan, etxera joan eta afaria prestatu eta familia esnatzen ibili beharrean, 24 ordu zabalik dauden dendetara joan eta ogitarteko beroa jateko aukera dago. Bankuak, posta bulegoak... goizetik gaueraino zabalik egoten dira, nahi duzunean joateko. Ez hemen bezala eguerdian itxi eta hurrengo egunera arte itxaron beharra dagoela. Edozein herritan, nahiz eta txikia izan labandaria eta 24 orduz irekitako dendak daude. Parke natural handiak daude eta jende asko ibiltzen da rulotekin oporretan, oso ondo prestatutako rulotak dituzte.



## “Gaurkoek errazago daukate, igual errezegi”

**Garai batean Goierriatik joan zen jendea Amerika aldera eta gaur egun Goierriera geroz eta jende gehiago dator kanpotik.**

**Andres:** Nahi duten guztia egiten ari dira batzuk eta ni oso haserre nago zenbait konturekin. Pentsa ze egurra eman ziguten guri! Kanpotik datozenak, orain, hilabete eta erdira paperak firmatu eta alde egiten dute. Guretzat lehenengo bi urtek ikaragarri gogorak izan ziren, orain ordea, honuntza datozenak erosotasun gehiago dauzka-

tela ikusten dut. Guk batere eskubiderik izan gabe ardu-  
ra gogorre heldu behar izan genien, eta orain berriz he-  
men, aditzen da askok gu daukagun erretiroa baino la-  
guntza gehiago daukatela.

Eta beste gai bat ere badago: baserrian lanean ari ga-  
renontzako atek itxita daude. Amerikan ganaduzaleak  
lagundu egin dituzte eta hemen egurto. Egin nahi dugu-  
nok oso gutxi gaude eta egiten ari garenoi egurra ema-  
ten?

Duela 43 urte joan zen Patxi lehenengo aldiz AE-Bra. Coloradora joan zen lehenengoz, gero Californiara eta azkeneko 32 urteetan, Wyomingo estatuan bizi da. Andres ere bertan bizi izan da. “30 urte inguru egin nituen Estatu Batuetan”, dio.

Bi anaiek beso zabalik hartu gaituzte Hiruetxeta baserriko sukaldean, beheko suaren epelean eta be-  
raien Amerikako lehenengo urteetako bizipenak luze eta zabal kontatu dizkigute.  
**Nolatan hartu zenuten**

**AEBra joateko erabakia?**

**Patxi:** Nik egia esango di-  
zut, ni ibiltari samarra beti  
izan naiz. Tranposoa eta  
ganberroa beti izan naiz ni-  
re denboran. Gu basoan eta  
artzain-morroi ibiltzen gi-  
nen. Nire asmoa gazte-gaz-  
tetatik izan zen, nonbaitera  
joatea. Lehenengo idea har-  
tu nuen, bakaladerotara joa-  
teko, diru asko irabazten  
zelako. Lazkaoko batek  
atzeratu ninduen. Bera ibili-  
ta zegoen bakaladerotan.  
Sei hilabete lan eginda  
etorri zen eta ez joateko

esan zidan: “dirua irabaziko  
duzu baina diruarekin pa-  
gatzen ez den bizia da ho-  
ri”, esan zidan. Atzeratu  
egin ninduen.

Gero etorri zen artzain  
joateko kontua.

**Andres:** Garai hartan, han  
artzainak behar ziren eta  
hemendik Amerikako ahots  
horrekin, diru hotsa zen; di-  
rua egiten zen hotsa bazan.  
Fabrikan pixka bat lana har-  
tu, orduan gaztea nintzen  
eta ez nuen egokia ezer  
aurkitu. Lana gogorra zen  
alde batetik eta bestetik bi-  
zimodua ateratzeko holako  
bide handirik ez. “Joan be-  
har diat ba” eta abentura  
bezala joan nintzen.

**Zenbat urterekin joan zi-  
nuten? Paper berezirik  
edo egin behar izaten al  
zen?**

**Patxi:** Soldadu 22 urte egi-  
teko joan zen eta lizentziatu

bezain pronto, 23 urte ni-  
tuen, Elizondora joan nin-  
tzen segituan paperak arre-  
glatzera. Hiru ahizpa ziren,  
Ana Maria Marin zen buru  
egiten zuena. Izugarrizko  
zerrenda zegoen. 7 urte be-  
randuago joan nintzen.

Tarte horretan Donos-  
tian nenbilen lanean. Diru  
asko irabazten nuen, he-  
men egon nintzen denbo-  
ran sekula irabazi nuen di-  
rurik gehiena irabazten ari  
nintzen.

**Andres:** Soldatutzatik eto-  
rri eta 25 urterekin joan nin-  
tzen. Lau urte eta 23 egun  
egin nituen karta berdea  
hartzeko. Amerikako medi-  
kuak ikusi gintuzten Bilbon,  
ondo negoziela. 3 urteko  
kontratoa zela, artzain. Ez  
geneukan beste biderik ga-  
rai hartan Amerikara joate-  
ko. Ardi asko izango geni-  
tuela, etxerik ez genuela

**E**gunen batean igual etorriko naiz, ez noa  
ezetz esatera, baina ez dut uste; erabat  
etortzeko portzentajea oso txikia da.



ikusiko, arkumeak gutxi, desierto handiak... eta horrelako gauzak esan zizkiguten.

#### **Nola joan zineten AEBra?**

**Patxi:** Hegazkinez. Bilbon gauean trenea hartu, goizeko 8etarako iristen zen Madrila. Pizarro deitzen zioten gizon bat zen enkargatua hark bideratzen zuen. Ezkerreko paparrean, artzain gindoa zenek, txarteltxo bat izaten genuen. 545 dolar kostatu zen hegazkineko txartela, joan-etorria.

Pisua izan zen biajea baina ni gustura joan nintzen, erokeria buruan sartuta neukan eta.

Goizeko 3etan iritsi nintzen Denver Coloradoko aireportura. Nagusiaren semea zegoen zain. Erderaz egiten zuen pixka bat eta ententitu ginen. Hotelera eramanez ninduen. Hurrengo goizean 9etarako etorri zen. Iparralderago zegoen Crake herria eta hara joan ginen hegazki txiki batean. Neguko rantxoa, Wyomingo partean zeukaten. Zarauzter batekin egin nuen topo. 5-6 urte egin zituen rantxo hartan. Bizkaiko gazte bat ere ezagutu nuen.


**Andres:** Ni Madrildik Nueva Yorkera joan nintzen eta handik Sale Lake Cityra, Utahera.

#### **Han zer aurkitu zenuten?**

**Andres:** Hara ailegatu nintzenez atentzioa batik bat, handia zela, jendea, jatekoa, hizkuntza... dena ezberdina. Hemen, mendiak gertu ohituta eta hara joan eta desierto ikaragarria, ezer ikusten ez zena, ganaduarekin, ikasitakoan, nahiko erraz. Joan berrikan, ardura dezentekoa.

Hasiera gogorra izan

**G**arai hartan, han artzainak behar ziren eta hemendik Amerikako ahots horrekin, diru hotsa zen; dirua egiten zen hotsa bazan.



*Zegamarrak, baina amerikarrak sentitzen dira Zabaleta anaiak. Amerikako Estatu Batuetako nazionalitate dute eta gida baimena ere, bangoa dute. Hizkuntzari dagokionean, ingelesa ere ikasi behar izan dute. "Nire gora-beherak egiteko adina ingeles ikasi dut. Andresek gebiango ikasi du", dio Patxik.*

zen: lana egin behar zen denboran, bakarrik, ardiak, txakurrak eta zaldiak nituen lagun. Bizitzeko, hemengo garai bateko ijitoen antzera. Karroen antzeko horietan, karro kanpok esaten diena. Han lo egiten zen eta sua egin eta jatekoa, norberak egin behar izaten zituen, guk hemen eduki ezin gizona zakeen gauza batzuk. Janarekin, hemen gerratean bezala, edo, okerrago igual.

**Patxi:** Lana ez zen gogorra baina bizimodua gogorra lehenengo momentuan. Lehenengo Coloradoko estatura joan nintzen. Amerikar zuria izan nuen nagusia. Negoziorako oso bizia zen gizona, azkarra, baina artzaintzat ez zen onena izan, gaiztoa. Txakurrek izena, zaldiek izena, ardiak izena eta artzain 'Flaco'. Nik goserik ez nuen pasa, baina jana ematen eskasa izan zen. Ogia geuk egin behar izaten genuen. Gogor samarra izan zen lehenengo urtea batez ere.

Lana ez zen gogorra, hantxe egon egin behar zapi egunean. 2.000 ardiekin ibilita nago. Kalifornian ere egon nintzen artzain.

Wyoming-n udan bakarrik egon behar izaten zen. Negu gogorra izaten zen baina niri beti gustatu izan zait Wyoming. Estatu lasaia izan da beti. Hotz egiten du, baina hezetan ez dago.

**Andres:** Hala zen, ardiak, zaldiak eta txakurrak, lodiak eta onak; artzaina mehea eta lijerua. Ni artzain, Californian 6 urte egon nintzen. Artzain nengoela koioetek txikizio handiak egiten zituzten artaldetan eta hil egiten genituen, gero he-

# ARRIETA

## JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

**OLABERRIA**

rrian ordaindu egiten zigten koioteengatik, emeengatik arreatatik baino gehiago.

Californiartik Wyoming-en eraikuntzan lana zegoe-la eta bertara joan nintzen. Baina, bertara iritsitakoan meategian aurkitu nuen lana. Hango nagusiak esanda etxe batzuk erosi nituen eta errentan jarri. Baina Zegamara itzultzea erabaki nuen duela 20 bat urte.

### Denbora asko egin al zenuten artzain?

**Patxi:** Libertatea hartzen zenean, hanka egiten zen ardien lanetik. Lanegatik ez baina diru gutxi izaten zen. Bagenekien joaterako zenbat irabazi behar genuen. Ni joan nintzenez, 200 dolar irabazten nituen; jana eta lotokia nagusiak ematen zizkidan.

Baina guk diru pixka bat irabaztera joan nahi izaten genuen. Zorte txarra ere izan nuen. Aurreneko nagusiak ez zidan paperik arreglatu nahi. Hango gobernuak eta hemengo gobernuak, akordioa firmatuta zeukaten, artzain bi urtean egoten zenean, emigrazio komisarioak galdeetzen zuen "residente permanente" egitea interesatzen ote zitzaidan. Baietz esan nion. Paper pilo bat firmatzea egin arazi zidan. Hortik aurrera, nagusiak konpondu behar omen zituen paperak. Baina nagusiak ez zituen konpondu. Hiru urteko kontratua neukan firmatuta, gainontzekoek bezalaxe. Bizkaitar bi baziren paperak konponduta eta kontsueloa ematen zidaten. Nagusiari galdeetzen nion baina beti atzera. Hiru urtera banindoa eta



**Andres Zabaleta:** "Orain txikiagoak ere badaude, baina 8 zilindroko kotxe handiak daude, indar handia dute".

nerbioso ere jarri nintzen eta bizkaitar horietako batek aguantatzeko esaten zidan, paperak lortuta nahi nuenean lan egingo nuela eta. Azkenean, lau urte egin nituen artzain harekin eta azkenean, egun batean, hasarretuta esan nion ea herrira eramango ninduen. Eramaten ez baninduen, errepidera atera eta norbaitek eramango ninduela esan nion. Gaizki erori zitzaion eta eramane egin ninduen. Atzetik karta bat bidali zidan, izan zuen langilerik onena izan nintzela, diru gehiago pagatuko zidala...

**Andres:** Bi urte erdiz esku-bidea zen, guri esan ziguteenez. Hiru urtez egoten bazen bat berekin, testigurik fuerteena nagusia zen. Askotan salduta ere egon ginen: emigraziokoa etorri bai baina nagusiak bidali egiten zuen. Eskutitzak

etxera bidaltzeko eman eta inork ezer jakin ez zezan, kartak bota egiten zituen... Ze burlak, eta zer gauzak!

### Karta berdea lortutakoan zer egin zenuten?

**Patxi:** Lau urteren ondoren, Zegamara etorri nintzen. Hiru urteko kontratua firmatuta Californiara joan nintzen. Californiako nagusiak arreglatu zizkidan paperak. Sei urte pasatu zituen. Paperak hartzerako 10 urte pasa ziren beraz.

Estatu Batuetan edozein tokitan lasai lan egiteko askatasuna eman zidaten. Han ibili nintzen tranpakerian beste hilabete batzuetan. Andres ordurako meategian zebilen lanean. Noizik behinean letraren bat egiten genion elkarri eta meategira lanera joateko esan zidan. Andres iparraldean zegoen eta ni hegoaldean. Hala erabaki nuen meategira joatera. Irailaren

hasieran pasatu ziren 32 urte Wyomingo Green Riverera joan nintzela.

Karta berdea hartu ez nuen artean, sekula ez zidan zahartzarorako xentimorik kobratu. Gutxixeago pagatuta ere hilero-hilero hamar urtean zerbait pagatu izan banu, gaur egun hobe to egongo nintzateke.

### Nolako lana zen meategietakoa?

**Patxi:** 1.600 oin bajatzen ginen behera. Igogailuan jaisten ginen. Harri gazi bat zegoen beheran. Bikarbonatoa egiteko erabiltzen da. Hiru errelebotara aritzen ginen lanean. Goizeko 8etatik arratsalde lauetara; lauetatik gaueko 12tara; eta gaueko 12etatik goizeko 8etara. 9 urte egin nituen. Konpainia ona zen: FMC. Garai hartan, japoniarrek ikaragarri esportatzen zuen ipar ameriketatik. Ordurako diru ona pagatzen zigu-

 **kutxa**



ten. Ingeles gehiago jakinez gero, beste lan batzuk baziren lurrean, baina entenditu ere egin behar zen, intentatu nuen baina ez nuen lortu. Lurrean, gehiengan, egunez lan egiten zen.

Ahal izanez gero, beti lan hobeak bilatzen saiatzen ziren. Meategiko lana utzi eta hoteleatan ontziak garbitzen ere ibili zen Patxi. **Andres:** Meatzean igogailuetan aldiko 80 lagun jaitsi eta igotzen ziren 700 metroko sakontasunera. Bertan egun batean artzain bezala, astebetean, irabazten zuena irabazten genuen. Urte betean 1.200-1.300 ordu extra egitera iritsi nintzen.

**Zer moduzko fama zeukaten euskaldunek?**

Oso fama ona dute euskaldunek. Langile gogorraren fama dute, ondo ikusiak daude. Españolak ere bai.



2002ko Legazpiko artzain egunen omenaldia jaso zuten Zabaleta anaiek, artzain txiletarrek eman zien saria.

bete eta bidali/eraman edo deitu:

**Goierriko Hitza.** Urbialde plaza 7 behea 20200 Beasain

Izena.....Abizenak.....

.....NA.....

Helbidea.....

Herria.....P.K.....

Telefona.....

k/k

P.elektronikoa.....

arreta zenbakia

**902-82 02 01**

(astegunetan 8:30-20:30 / larunbatetan 9:00-13:30)

egin zaitez orain  
**Hitzaren**  
eta **Goierritarraren**  
**harpidedun\***

eta zure  
**ametsetako bidai**  
eskura dezakezu!



bi lagunentzako astebeteko egonaldia



kanaria uharteak **egipto**  
jordania **riviera maya salvador (brasil)**  
costa rica **istanbul india**

Deiak edo esku orriak jasotzeko azken eguna: abenduak 12  
Zozketa eguna eta irabazlea egunkarian: abenduak 20

\*beharrezkoa da urte osoko harpidetza egitea. HITZA+GOIERRITARRA edo HITZA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa. Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak GOIERRIKO HEDABIDEAK SL-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, enpresak dituen eskamitzen berri emateko, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezarritako eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko, Hala egin nahiz izanez gero, idatzi helbide honetara: GOIERRIKO HEDABIDEAK SL, Urbialde plaza 7 behea, 20200 Beasain, edo harpidetza@hitzazinfo

# Goiatz Arana, Goiena telebistako aurpegi goierritarra



**G**oiena telebistan aurpegi ezaguna da Goiatz Arana ormaiztegiarrarena. Bost urte daramazki Arrasaten, eskualdeko telebistan lanean. Gaur egun, erredaktore buru izatearekin bate-

ra, eguerdiko albistegietako aurkezlea da ormaiztegiarra. Euskadi Gaztean ere ibili izan zen kazetaritzako ikasketak bukatu berritan. Kazetariaren ibilbidea gertuagotik ezagutu nahi izan dugu lerrootan.

  
**ONE MENDIZABAL**  
**ILEAPAINDEGIA**

Emakumezkoen nahiz gizonezkoen ileapaindegia  
Astelehen goizetan zabalik



943 18 04 92  
Helbarrena, 24  
ATAUN

# berriz

Kale Nagusia, 8  
BEASAIN

Hondarribi, 25  
Hondarribi, 30  
DONOSTIA



### **Zein duzu orain arteko kazetaritzako ibilbidea?**

Kazetaritzako ikasketak 2000. urtean bukatu nituen eta urte hartan bertan hasi nintzen Teledonostin, praktikatan eta jarraitzeko aukera eman zidaten, kontratua eginez. Urte pare bat egin nituen. Garai hartan, Euskadi Gaztean ere ibili nintzen bi udatan. Bi urte Teledonostin eginda gero aldatzeko aukera sortu zitzaidan, Arrasatera etorri nintzen eta urriaren bost urte egin ditut bertan.

### **Irratia eta telebista biak probatu dituzu. Lanerako bi komunikabide ezberdin izango dira, ezta?**

Euskadi Gaztean irrati formula deitzen zitzaiena zen, autokontrola. Esatari eta teknikari lanak, biak egin behar izaten nituen. Erabat-erabat berria zen niretzat. Dena musika zen... ezberdina bai. Irratia ere polita da.

### **Teledonostin zein programa motatan ibili zinen?**

Informatiboetan eta programa batzuetako bideoak prestatzen ere bai. Umeen-tzako programa bat, magazina, mediku... euskaraz eta erdaraz.

### **Goitb-en berriz, dena euskaraz egiten duzue. Arrasateko euskara, Ormaiztegikoa, batua... zer erabiltzen duzu?**

Langileen arteko harremanetan nire, baina aurkezte-

rakoan, batua. Ez naiz ausartzen bertako hizkera erabiltzen. Herri batetik bestera gainera, aldatu egiten da. Eta goierritarra ere ez zait egokia iruditzen lanean erabiltzea, eta orduan batua erabiltzen dut.

### **Zein lan egiten duzu Goitb-en?**

Erredaktore buru bezala nago eta eguerdietetako albistegia ere aurkezten dut.

### **Kamera aurrean zer moduz moldatzen zara?**

Egia esanda, kamera aurrean jartzen naizenean ez naiz jartzen pentsatzen nor egon daitekeen begira. Burutik pasatu ere ez, eta uste dut hobe dela. Hasiko bagina pentsatzen, orain ez dakit zenbat pertsona daudela begira... inpresio handiagoa egingo liguke.

Ezin da konparatu guk hemen eduki dezakegun ikusle kopurua eta ETBk eduki dezakeena. Baina nik uste dut azkenean saiitzen zarela zure lana ahalik eta ondoen egiten. Jendea begira dagoenik ere ez duzu pentsatzen. Zuzenean zauden momentuan badakizu atera egin behar zarela.

### **Zuzenean aurkezten al dituzue albistegia?**

Bai, informatibo bat aurrez grabatzeko ia sekula ez baitu astirik ematen. Askotan horrela hobe izaten da, grabatuta baldin bada, akats txiki bat egindakoa, gelditzeko aukera dagoela bada-kizu, gelditu egiten baitzara



## **Ormaiztegiko festak**

Taberna daukagu etxean eta ihesalditxoren bat egingo dut egunen batean baina normalean lana tokatzen da. Pasatzeko gogoarekin egoten naiz. Askotan mentalizatzeari izaten da.

eta hori ere ez da. Zuzeneko da eta telebista horrela da. Perfekto ateratzea ere zaila da.

Hasieran zailena, objektiboari begiratzea egiten zitzaidan. Zoomari begira hizketa egitea kosta egiten zitzaidan. Baina nire burua ikusitakoan, ikusten nuen, zoomari begiratzen ez banion, galdetu nengoela ematen zuela.

Eta egunak ere badaude. Egun batzutan oso eroso zaude eta beste batzutan, arrazoi zehatz bat eduki gabe, ez zaude hain gustura, hain seguru. Baina orokorrean, gustura egiten dut.

Pronterrik ez daukagu eta gurekin izaten ditugu paper guztiak. Albisteari paso ematen diozunean, hurrengo albistea prestatzen aritzen gara.

### **Inoiz trabatuta gelditu izan al zara?**

Ez, desataskatzen zara, beste erremediorik ez daukazu-lako. Orain dela asko ez dela, anjinekin ibili nintzen eta gertatu zitzaidan, hizketan hasi eta ahotsa jaitsi eta jai-

**Ez naiz ausartzen bertako hizkera erabiltzen eta goierritarra ere ez zait egokia iruditzen zuzenean erabiltzea, eta orduan euskara batua erabiltzen dut.**

 **GERTU**  
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK  
San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN  
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33  
gertu@gertuasesores.com

**PSIKOLOGI KLINIKOA**  
 **Jose Ramon Pato Prieto**  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 420/01  
**AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041**  
**JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN**

**Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak**

tsi, ez zitzaidan entzuten.

Hitzen batean trabatu eta laugarrenean atera eta horrelakoak bai.

### **Inprobisatu behar izaten al duzu?**

Dena idatzita egoten da baina gertatzen da ez dudala astirik izaten albisteak begiratzeko. Albiste bati paso eman eta orduan begirutzen ditut albisteak. Oso-osoa momentukoa da.

### **Zein gai mota gustatzen zaizu gehien?**

Gai sozialak, errazanak egiten zaizkit. Politika ere interesgarria iruditzen zait, kultura... Gero betikoa da, kazetariak denetik jakin behar duela suposatzen da, baina denetik zenbat kontrolatu dezakezu? Arlo guztietan arlo asko sartzen dira.

### **Zein saio mota gustatuko litzazuke aurkeztea?**

Ez dakit, ez daukat halako pentsamendurik. Agian, magazine estiloko zerbait, beste tonoa bat, tertulia, kolaboratzaile batzuekin, saio luzeagoa, konexio puntual batzuekin...

### **Arrasateko telebista izatek eskualdeko telebista izatera pasatu da.**


Lehen ATB zen eta gero Goiena telebista sortu zen. 9 herritan (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Elgeta, Bergara, Oñati, Antzuola eta Aramaio) ikusten da nahiz eta eskualdean 8 herri izan. Aramaio ere sartu egiten dugu, nahiz eta Arabakoa izan.

### **Horrelako komunikabide txikietan denetik egin beharra tokatuko da.**

Bai.

### **Grabatzea ere bai, ezta?**

Horretara goaz. Aurten sartu den aldaketa bat da hori. Orain artean kazetariak bere lana egiten zuen eta beti teknikari batekin joaten zen irudiak grabatzeko. Orain asmoa da, kazetaria bera bakarrik joatea eta bera arduratzea kazetari eta teknikari lana egiteaz. Kasu batzutan ez da posible izango



eta muga bat hor egongo da. Katalunian horrela funtzionatzen omen dute aspalditik. Lan egiteko modua aldatuko da. Ikusiko dugu zer ematen duen.

### **Komunikabide handien harrobi direla esaten da herri komunikabideak.**

Bai, hemendik jende asko atera da: Maider Egues, Asier Aranguren, Ane Igartiburu...

### **Eskola ona da beraz.**

Bai, esan liteke baietz. Batek baino gehiagok esaten dit hori, baina ni ez nago horri begira. Aukera etortzen baldin bada ikusiko da zer gertatzen den. Baina momentuz gustura nago Arrasaten.

### **Herritarrek telebista ateratzeko pronto izaten al dira?**

Errazanak, umeak eta adinekoak izaten dira. Gure artean aritzen gara esaten, Oñati dela herririk onena inkesta egiteko, Aretxabaleta txarrena... Egunak ere izaten dira. Batzutan inkesta egitea desesperantea izaten da. Erdaldunak ere errazago animatzen dira. Erdarazko batzuk sartzen ditugu itzulita baina denak ere erdaraz ez zaizkigu interesatzen.

### **Orokorrean, telebista nola ikusten duzu?**

Telebista oso gutxi ikusten dut. Batzutan faltan botatzen dut, askotan ondo etortzen baita, besteek ere zer eta nola egiten duten ikustea. Baina egia da oso gutxi ikusten dudala, beraz ezin dut besteetan egiten denaz asko hitz egin.

### **Astirik ez daukazulako ala ez zaizulako gustatzen?**

Ez da gustatzen ez zaidala. Sekula ez dut ikusi telebista asko. Denbora handirik ez eta astia daukadanean, askotan beste gauza asko egiten ditut, telebista ikusi aurretik. Egia da gertatzen dela, baita ere, denbora daukazunean telebistara begira jarri eta gustuko ezer ez topatzea.





**“Kazetari izango ez banintz, bikoizketan saiatuko nintzateke”**

**Kazetari edo aurkezle bat:**

Euskadi Irratiko 'Mezularia' saioko Maite Artola. Galdera onak egiten ditu.

**Zure buruari egiteko galdera bat:**

Imajinatzen al duzu zure burua kamera aurrean, 20-25 urte barru?

**Liburu bat:**

Alberto Vázquez Figueroaren 'Olvidar Machu-Picchu' irakurri dut azkena. Gustatu zait.

**Musika talde bat:**

Itoiz.

**Zaletasun bat:**

Mendira joatea.

**Kazetari izango ez bazina...**

Bikoizketan saiatuko nintzateke.

**Amets bat:**

Munduan zehar nahi adina bidaiatzea.

**Zerk sortzen dizu barrea?**

Zenbait politikari esateko gai direnek.

**Eta negarra?**

Injustiziek.

**Ormaiztegiako jaietarako plan bat:**

Elegante egunean goizetik atera, herri bazkarira joan eta festan jarraitzea.

**Herriko alkate izango bazina...**

Etxebizitza duinak egiten saiatuko nintzateke, prezioz eta kalitatez.

**Sanperio  
kalea  
ORDIZIA**

**ok. indiegia - kafetegia**

Ogi berria  
egun guztian  
zehar

Bertako produktu naturalak:  
urdai azpikoa, saltxitxoia...  
jogurtak, esnea...

Baserriko  
produktuekin  
egindako  
gosariak

**xetai**

nafarroa etorbidea 1  
20200 beasain  
www.xetai.net

# Zegamako umeen kantuak eta esaldiak

*Xabier Azurmendiren 'Atzoko Zegama' liburutik*

Ondorengo lerrootara, Xabier Azurmendi zegamarrak, 'Atzoko Zegama' liburuan bildutako pasarte bat ekarri dugu: zegamarrek, haurrei kantatzen zizkien kantuak, esaldiak... biltzen dira bertan.

## Behatz jokoa

Esaldi hauek hizketan hasi berriak ziren umetxoei erakusten zitzaizkien, ipuina eta hizkera batera erakusten zitzaien.

Esaldi bakoitza behatz bati loturik dihoa, behatz txikietik hasita.

Onek âpiti arrautzea ekarri,  
Onek surtan jarri,  
Onek gatza eman,  
Onek proatu,  
Onek dana jan da potzolo potzolo ein.

## Kontatzen irakasteko esaldiak

Bat . . . . .Martin parrat.  
Bi . . . . .Martin ipurdi  
Iru . . . . .Kolkoa bete diru.  
Lau . . . . .Xaguxarrak jango al au.  
Bost . . . . .Kakatan prost edo auntek babea kosk.  
Sei . . . . .Ukullue bete bei.  
Zazpi . . . . .Ez gabiltza gaizki.  
Zortzi . . . . .Askea (fregaderea) bete ontzi.  
Beatz . . . . .Sartuitzek ipurdin beatz bi.  
Amar . . . . .Armearma mar-mar.  
Hamaika . . .Zakurren lukaika.  
Amabik . . .Lapikon agonik.  
Amairu . . . .Attonek amonea nai do.

## Zerbait galdutakoan

Umeen artean zerbait galtzean edo norbaitek zerbait hori bilatzean, esaldi hau bost aldiz esan ohi zen. Kantuak ziraun bitartean jabea azaltzen ez bazen, gauza aurkitu zuenarentzat izaten zen.

Semitonuan esaten zen esaldia.

Gauza bat billatu det,  
Bost aldiz esango det,  
Jaberik azaltzen ez pada  
Neretzat gordeko det.

## Inuxente egindakoa

Beste bat inuxente egindakoa esan ohi zitzaiona.

Inuxente,  
Kapuxente,  
Txakurrek buztana tente.

## Negar eta parre

Ume batek parre eta negar batera egitean.

Lên parrez,  
Ta oaiñ nearrez,  
Kanpatorreko  
Belarrak jateko pozez.

## Umea beti ume

Gure haurtzaroan umeok gaur bezalatsu, krudelak giñen.  
Hona agiri bat:

Aitona zarra,  
Zirriki zarra,  
Bibolin,  
Tilin,  
Tilin.

Beste kantu antzeko bat,

Txalo txalo txin,  
Aitona porratxin,  
Ibilli,  
Ibilli,  
Ibilli ariñ.  
Bestela, bestela  
Emen da Martin.

## Izenei bertsoak

Zenbait izenei egin ohi zitzaien bertsoak.

Joxe,  
Joxe kitarra,  
Badaukela,  
Badaukela,  
Auntek aňeko bizarra.  
Botatzen duela,  
Botatzen duela,  
Prantzi aňeko puzkarra.

Joxemari,  
Barabiri,  
Lau anka ta bost belarri.

Andres  
Pikulatres,  
Boltsea bai ta dirurik ez.

Migel,  
Saskie bete gibel.



## ‘Atzoko Zegama’ liburuaren berrargitarapena

Zegamako Xabier Azurmendiren ‘Atzoko Zegama’ liburua berrargitaratu dute Eusko Ikaskuntzak eta Zegamako Udalak. Azaroaren 5ean egin zuten aurkezpena. Eusko Ikaskuntzak eta Zegamako Udalak 1997. urtean sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena, herriko kultura eta zientzia jarduerak bultzatzeko asmoz. Hitzarmenaren baitan garatutako lehenengo ekintza izan zen ‘Atzoko Zegama’ liburuaren argitalpena. Liburuari hark, Xabier Azurmendi apaiz eta poetak Zegaman jasotako ipuin, kondaira, esaera zahar eta ohi-turak bildu zituen. Berehala agortu zen lehenengo edizioa. Hori dela eta, Lankidetzaren bilduman berrargitaratu dute orain.

Joxe Antonio Ormazabal zegamar idazlea oso gustura azaldu da berrargitarapenarekin. “Nik irakurri dudana liburu-rik onena zein den galdetzen didatenean liburuetako bat ‘Atzoko Zegama’ dela esaten dut. Liburu hau herri jakintzaren altxorra da. Praktiko gainera. Goierrin eta hemendik kanpora disfrutatzeko modukoa. Hori bai, gaia pixka bat gustatu egin behar zaizu. Eskolatuek eta eskolatu gabeek irakur dezakete, gazte zein helduek. Oso egokia izan daiteke irakasleentzat ere ikasleekin batera lantzeko ipuinak, ohi-turak, esahera zaharrak... biltzen baititu”.



*Xabier Azurmendiren 'Atzoko Zegama' liburu berrargitaratuaren auzkezpena: Luis Mari Zaldúa Liburuaren editorea eta bitzaurrearen egilea, Edurne Albizu Zegamako alkatea, Teresa del Valle Gipuzkoako Eusko Ikaskuntzako Lehendakariordea eta Jose Antonio Ormazabal idazlea eta egilearen laguna. Arg.: Estitxu Imaz.*

Xanti  
Manki,  
Txerri buztanki,  
Mokordo ta erdi.

Inazio,  
Palazio,  
Jan da eran despazio.

### Neskak korroan

Neskatxek korroan kantatu ohi zutena.

Un don din  
Colorin colorette,  
Mi mujer  
Se tragó un filete.  
Hajo perejil,  
Hajo perejil,  
Quinientos mil.  
Rosa con rosa,  
La más florida,  
La más hermosa,  
Usted, niña bonita escoja.

### ‘Goardias y ladrones’

Kantu hau motikoek abestu ohi genuen, goardias y ladrones jolasa hasterakoan.

Kuku, miku  
Txantxaperro  
Kastillano pin pon.  
En mi casa hay un ladron,  
Que me roba todas las cosas  
Que yo tengo en mi balcón.  
Ministro  
O  
Ladrón.

Lau motil izkutatzen ziran eta beste lau billa zijoatzen.

### Moja frantsesen abestia

Zegaman 1915etik 1926ra moja frantsesak egon omen ziren. Ez dirudi inork frantses asko ikasi zuenik. Hala eta guztiz moja haiek erakutsitako kantu frantsesa nola kantatu den gaur arte.

Aliron printze,  
Tiaro dan coadan antze.  
Antze,  
Antze,  
Antze,  
Fuera comandante,  
La mama de funfurre,  
Fuera está usted.



## Miren Naldaiz piano jolea

*Isidro Larrañaga akordeoi orkestrako baxua da*

**P**ragatik iritsi berritan harrapatu dugu Miren Naldaiz lazkaotarra, Tolosako Isidro Larrañaga akordeoi orkestrarekin nazioarteko txapelketa batean parte hartuta. Txapelarekin itzuli

da gainera. 14 urte ditu. Piano ikasketak egiten ari da eta esperientzia berria bizitzeko aukera izan du, orkestra bateko kide izatea, orain arte bakarka aritu baita. Baxua jotzen du lazkaotarrak.

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"**



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44




**mazda**

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma  
BEASAIN

**Bikar, S. A.**







**Isidro Larrañaga akordeoi orkestra, Isidro Larrañaga Belokik sortu zuen 1980. urtean. 14 eta 35 urte bitarteko 25 gaztez osatua dago. Azken urteetako curriculumari begiratu, ondorengo sariak irabazi ditu: 2000. urtean, Ginebrako 'XVIII. Acordion International Gran Prix'; 2001ean eta 2002an, Kantabriako X. Nazioarteko lehiaketa; 2007an 'Certamen de Acordeon Villa de Cedeira' eta Pragako lehiaketa.**

9 urte zituenean hasi zen pianoa ikasten Beasaingo Musika eskolan. 14 urte ditu eta urrian hasita, Tolosako Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrako kidea da. Pianoarekin, baxua jotzen du orkestran. "Baxua jotzeko pertsona bat behar zuten, Pragako lehiaketara joateko modurik ez zuelako aurrekoak", dio Miren Naldaizek. Baiezkoa eman zuen eta oso esperientzia ona bizi izan du. Aurrera jarraitzeko aukera eman diote gainera eta Mirenek ez du zalantza handiegirik izan. "Oso ha-

rreman onak egin ditut. Oso giro ona aurkitu dut. Nahiz eta adin ezberdinetakoak izan, 14 eta 30 urte bitartekoak, oso ondo moldatu gara".

Hilabetean gogor entseatu behar izan du azaroaren 3ko Pragako txapelketa prestatzeko. Asteaz hiru aldiz, lau orduko entsaioak egiten zituzten, eta etxean ere makina bat ordu sartu behar izan du teklatura astintzen.

Izan ere, Pragako lehiaketa, Europako saririk garrantzitsuenetarikoa da,

"Gran Prix bezalakoa. Alemania, Suitza, Errusia eta Txekiako taldeak zeuden", kontatu digu Mirenek.

Azaroaren 3an izan zen lehiaketa, dena den, aurreko egunean kontzertu bat ere eman zuten inguruko eliza batean. F. Liszt-en

'Hungariar rapsodia' eta H. Ehme-ren 'Prefugioa, J.S. Bach-en memorian' obrak jo zituzten. "Nahiko obra zailak ziren", aitortu du lazkaotarrak. Bezperako kontzertuan, aurreko bi kantuetz gain, Guridiren 'El caserio' lana ere jo zuten.

**LOINAZARGI**

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO  
Tel.: 943 164 846 - 627 505 687



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Informatika-gaien salmenta eta konponketa
- Informatika hornikuntzak, sareak
- Telekomunikabideak



**Iñauti**  
Hartz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28



**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



## “Modako argazkilaria izatea da nire ametsa”

**Pianoaz gain, beste musika tresna bat:**

Arpa.

**Zaletasun bat:**

Lagunekin egotea.

**Kirol bat:**

Eskia eta atletismoa.

**Musika talde bat:**

Talde asko gustatzen zaizkit, ez dakit bat aukeratzeko.

**Liburu bat:**

‘La orden de la academia Spencer’

**Aktore bat:**

Richard Gere eta Brad Pitt. Jonny Deep ere bai.

**Janari bat:**

Arraina.

**Edari bat:**

Zerbait suabea eta freskoa.

**Amets bat:**

Argazkilaritza ikasten badut, modaren inguruan lan egitea.

### Esperientzia ona

Taldean jotzen lehenengo esperientzia izan da Miren Naldaizentzat. “Aurretik, bakarka edo talde txiki batekin aritu izan naiz. Horrelako talde batean inoiz parte hartu gabe nengoen. Dena berria izan da. Taldean jotzen ohitu egin behar izaten da. Ahots ezberdinak daude...”, dio lazkaotarrak.

Taldean ondo egokitu da. “Taldea hau oso berezia da eta talde honekin jotzea oso polita da; baina bakar-

ka jotzea ere asko gustatzen zait”.

Musikaren aitzakian, Praga ezagutzeko aukera ere izan dute. Azaroko zuzen egin zuten bidaia, Pra-

gara. Bi autobusetan joan ziren: batean musikariak, eta bestean familiarakoak eta lagunak. “Oso polita izan da”, esan du lazkaotarrak.

**Oso giro ona aurkitu dut. Nahiz eta adin ezberdinetakoak izan, 14 eta 30 urte bitartekoak, oso ondo moldatu gara”**

### Enbor bereko ezpala

Enbor bereko ezpala dela esan liteke Miren Naldaiz lazkaotarra. Amaren bidetik jarraituz, piano ikasketak burutzen ari da. Dena den, oraingoz behintzat, etorkizuna ez du pianorekin lotuta ikusten, “gaztea naizen bitartean bakarrik. Pianoa ikasten jarraituko dut baina ez dut musikatik bizi nahi. Hobby bezala”.

Handia egindakoan argazkilaria edo dekoratzailea izan nahi du.


**SOLOZABAL  
AUTO-ESKOLA**

**Mota guztietako  
gida-baimenak**

**Aita Urdaneta**

**ORDIZIA**

**☎ 943 88 72 76**



**☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA**

**AUSO EGI**

**ERREFORMAK**

- ✘ Tximini eta ekonomikak
- ✘ Berogailuak
- ✘ Iturgintza
- ✘ Zeramika erakusketa
- ✘ Bainuko altzariak



## LANA

### eskaerak

**Pertsona** bat behar da sagar-dotegi batean mahaiak zerbitzatzeko. Urte osoan larunbat gauetan eta igande eguerdi batzuetan. 618930021.

**Neska** behar da jatetxe batarako 943801799.

**Langile** arduratsua behar da Beasaingo aroztegi batean lan egiteko. 943-16 06 84 (goizez) edo 676 61 53 61 (goiz eta arratsalde).

**Zerbitzariak** behar dira aste-bukaeretan jatetxean lan egiteko. 606503777.

**Jatetxe** eta taberna desberdinetarako zerbitzariak behar dira. Baldintza interesgarriak eta soldata ona. 609531681.

**Neska euskalduna** behar da ordu batzutan etxeko lanak egiteko. 943885271.

### eskaintzak

**Emakumea** eskaintzen da pertsonak zaintzeko eta etxeko lanetarako. 652701620

**Neska** euskalduna eskaintzen da tabernan edo etxeko lanak egiteko. 677283129. Amaia.

**Neska** eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Orduka edo egun osorako. 606722876.

**Neska** umeak edo adinekoak zaintzen, garbitzen... lan egingo luke orduka. 648051991.

**Neska** batek lan egingo luke orduka edo lanaldi osoz garbitzen, zerbitzatzeko, umeak eta adinekoak zaintzen. 660966944.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da [www.goierrikohitza.info](http://www.goierrikohitza.info) webgunean.

943 16 00 56

[goierritarra@goierrikohitza.info](mailto:goierritarra@goierrikohitza.info) / [gh@goierrikohitza.info](mailto:gh@goierrikohitza.info)

## ETXEBIZITZAK

### logela

**Logela** alokatzen da CAFeko injenieri talde batek konpartitutako etxean. Kultura, industria, osasun edo irakaskuntza munduan murgilduta dagoen pertsona bilatzen da, nahiz eta hau ezinbestekoa ez izan. Deitu 656761030 edo 943027799.

### errentan hartu

**Bikotea** alokairuan dagoen pisu bila dabil. 687795557 /617168510.

### salgai

**Beasain.** Etxebizitza salgai: 50 m<sup>2</sup>. 2 logela, eraberritua, altzariz hornitua. 26 milioi peze-ta. 605765135 - 670422467.

**Beasain.** Erdi berritutako

apartamendua salgai, Nafarroa etorbidean, Geltoki inguruan. Egongela, sukalde hornitua, 3 logela, komuna, igogailua. Gas naturala, leihoraino. 656740305 / 625700907

**Beasain.** 2 solairuko etxean, 80 m<sup>2</sup>, kanpoaldera. 685784552. (20:00etatik 22:00etara).

**Beasain.** Etxebizitza salgai. 72 m<sup>2</sup>. 3 gela, egongela, sukalde, bainugela eta 50 m<sup>2</sup>ko terraza. 680238512.

**Beasain.** Etxebizitza salgai. Gazteentzat aproposa. 619441919.

**Benidorm.** Apartamendu-estudioa salgai. Igerilekua, parkina. Hondartzatik 2 minutura. Itsasora bista ederrak. 626610384.

## BESTELAKOAK

### salgai

**Zurezko mahai** handia eta aulkiak salgai. Prezio onean. 690311342.

**Sutarako** pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615755762.

**Tarot** kontsultak. 943766214.

## IBILGAILUAK

**Volkswagen** California salgai, 1991. urtekoa. 620256197.

## GARAJEAK

**Garaje** itxia salgai, Beasainen. 637211107.

## GALDUTAKOAK

**Betaurrekoak** galdu dira, funda naranjarekin. 637008488.

## LOKALAK

### salgai

**Lokala** salgai, ileapaindegi, tailerra, biltegia... jartzeko aproposa. Prezio negoziagarria. 666062963

**over Urraki**  
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
[urraki@over.es](mailto:urraki@over.es) [www.over.es](http://www.over.es)

Garraio azkarreko enpresak autonomoa behar du, furgonetarekin (Berlingo modukoa)

616 40 60 96

**Ikaskide**  
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:

Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word...

INGELERA:

Haurrak, gazteak, helduak

IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza

Joan Iturralde, 5, Beasain  
943 160 120  
[www.ikaskide.net](http://www.ikaskide.net)

*Ordizia***Gabonetako postal eta idazlan lehiaketa**

Ordiziako Goiztiri AEK-k Ordiziako Udaleko Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean, Ordiziako Jakintza, Urdaneta eta Oianguren ikastetxeetako ikasleentzat, Gabonetako postal eta idazlan lehiaketa antolatu du aurten ere. Oinarriak dituzue segidan:

**Postal lehiaketa**

DLHko 3. zikloa eta DBH1eko ikasleek hartuko dute parte kategoria bakar honetan. Gaiak Euskal Herriko Eguberri edo Gabonekin lotura izan beharko du. Banakako lanak izango dira (izen-abizena eta maila jarri). Epaimahaia Goiztiri AEK-ko ikasle eta irakasleek osatuko dute. Ikastetxe bakoitzeko (Urdaneta-Oianguren eta Jakintza) ikasleei hiruna sari emango zaizkie, Lazkaoko Gerriko liburudendan materiala erosteko tikeak. Lanak abenduaren 14an, jasoko dira ikastetxean bertan eta beraiekin erakusketa egingo da Barrena Kultur Etxean (abenduaren 22tik urtarrilaren 8a bitartean).

**Idazlan lehiaketa**

DBH2ko ikasleek bakarrik hartuko dute parte. Lanak, norberak sortutakoa eta inon argitaratu gabea izan beharko du. Gaia libreza izango da. Neurriak: bi orrialde gutxienez eta lau gehienez (eskuz idatzitakoak ez dira aintzat hartuko). Lanak izenburu bat beharko du eta ezizenez izenpetua agertuko da, kartazal baten barruan egilearen izen-abizenak idatziz. Lana eta kartazala, kartazal handiago batean gordeko dira, bertan ezizena jarritz. Epaimahaia Goiztiri AEK-ko irakasle eta goi urratsko ikasleek osatuko dute. Parte hartzen duten ikasle guztien artean (hiru ikastetxeetako ikasleak barne), Lazkaoko Gerriko liburudendan materiala erosteko tiketak banatuko dira. Lanak abenduaren 12an, jasoko dira ikastetxean bertan.

*Ordizia***Zeraingo meategietara irteera**

Zeraingo Aitzpea meategietara irteera antolatu dute Ordiziako Goiztiri-AEK euskaltegiak eta Udaleko Euskara Sailak. Irteera azaroaren 29an izango da, eta 14:30etatik 16:30etara irauango du, gutxigora behera. AEKko ikasleei ez ezik, mintzalagunei eta arratsaldea euskaraz eman nahi duten herritarrei dago zuzenduta irteera. Joan nahi lukeenak, Euskara Zerbitzuan (Herritarren Arretarako Udal Bulegoa) edota 943 805622 zenbakian eman beharko du izena, azaroaren 26a baino lehen.

Halakoetan ohi duenez, Euskara Zerbitzuak hartuko du bere gain irteera egiteak sortuko duen garraio gastua eta, horrenbestez, AEKko ikasleak edota herritarrak ez du dirurik jarri behar izango.

*Ordizia***Gipuzkoako bertso txapelketako azken finalaurrekoa**

Abenduaren 16an jokatu da Gipuzkoako bertsolari txapelketako finala, Donostian, Illunbe zezen plazan. Bertan parte hartuko duten zortzi bertsolariak aukeratzeko finalaurrekoak jokatzen ari dira. Azaroaren 24an adibidez, Iker Zubeldia zegamarra arituko da Oartzunen. Gainerako bi goierritarrak, Aitor Sarriegi beasaindarra eta Joxe Munduate ataundarra, Ordizian izango dira lehian abenduaren 1ean, azken finalaurrekoan. Majori kiroldegian izango da saioa, arratsaldeko 6etan hasita. Bi goierritarrekin batera, Aitor Mendiluze, Iñaki Zelaia, Unai Muñoa eta Iñaki Gurrutxaga ariko dira. Donostiako finalerako txartelak salgai daude dagoeneko.





*Legorreta*

## Neguko festa

Azaroaren 24an, bete-beteko eguna izango dute Legorretan, Udalak, Ugara eskolako Guraso elkarteak, Musika Eskolak eta Elekun abesbatzak antolatuta.

Eguerdian, 14:30ean, babarrun bazkaria izango da, Bilkoin elkarteak. 25 euro kostako da. Lortzen den dirua Elekun abesbatzarentzat izango da.

Arratsalde partean, 17:30ean, txikientzako musika jokoak izango dira. 18:00etan, kalejira txistulari eta trikitalariek eta 18:30ean, musika emanaldia.

Iluntzerako berriz, gaztain erre jana izango da, udal pilotalekuan, 18:30ean hasita. 3 euro ordaindu beharko dira. Lortzen den dirua, Ugara haurtzaindegirako izango da.

*Zerain*

## Gipuzkoako Eskola Txikien festa antolatzeko bilera

Datorren urteko ekainaren 8an Gipuzkoako Eskola Txikien Festa ospatuko da Zerainen, eta aldi berean Zeraingo Eskolaren 25. urteurrena ospatuko dute zeraindarrek. Festaren antolaketa bideratzeko bilera egingo da, abenduaren 1ean, eguerdiko 12etan, Zeraingo udaletxean.



*Idiazabal*

## 'Jostailuak edukitzeko ala jostailuak hazteko?'

0-6 urte bitarteko haurren gurasoentzako hitzaldi-tailer zikloa ari dira burutzen Idiazabalen. Aurtengo ikasturtean Idiazabalgo Udalak eta Aita Iparragirre Herri Eskolak elkarlanean, heziketa prozesurako baliagarriak izan daitezkeen hitzaldi-tailerrak antolatu dituzte. Lehenengo urtea izanik, abiapuntu bezala 0-6 urte bitarteko haurren gurasoei zuzenduak izango dira, eta erabiliko den hizkuntza euskara izango da. Saioak azaroko asteartean, arratsaldeko 17:00etatik 19:30etara burutu dira Herri Eskolan. Azkeneko hitzaldia, azaroaren 27an izango da. Gaia: "Jostailuak edukitzeko ala jostailuak hazteko?".



**ondoeta**

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com) [www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



**SILVIA MIRASCASAYAS**  
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



### Alegikoak mozorroturik Ormaiztegin

1930. urte inguruan Ormaiztegin ateratako argazki honetan, Alegi auzokoak mozorroturik ageri dira.

**Goiko ilaran ezkerretik eskuinera:** Joxepa Maiora (Agerreberri Gabiria), Inazia Atin (Altzibar Gabiria), Migel Goitia (Atxusain Itsaso), Bizente Atin (Altzibar Gabiria), Luzio Iraeta (Errazti Itsaso), Eugenio Azurmendi (Atxusain Itsaso) eta Joxepa Intxausti (Errota Itsaso).

**Lurrean eserita:** Juan Antonio Intxausti (Errota Itsaso), Luis Iraeta (Errazti Itsaso), Pedro Zurutuza (Lizarazu Gabiria) eta Gregorio Zurutuza (Lizarazu Gabiria).

**Erretegi bezala zabalik**

- \* Eguneroko menuak
- \* Karta zerbitzua
- \* Osparkizunak
- \* Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**

barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
idea berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
BEASAIN

SALMENTA PUNTUAK:

**Beasain:** Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

☎ 943 80 10 66 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak **ZEGAMA**



**BARANDIARAN**  
**Zeramikak**

ERREF. MAK   DISEINUAK   PROIEKTUAK   BAINUAK   HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN  
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

ANDAMIORIK  
GABEKO  
LANAK

**NANARRI**  
LAN BERTIKALAK  
680 641 401  
676 952 968  
www.nanarri.com

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak  
Teilatuak   Kanaloiak   Bajanteak   Tximiniak   Altuerako kimatzeak





# ITOLIZ

**Artisautza Produktuak eta Gazte Moda**

**San Inazio 6 Beasain 943 02 75 20**

